



Iturria: *Euskal lan guztiak*, Agustin Kardaberaz (faksimilea).
La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazMezaKomunioa.htm>

MEZA ETA KOMUNIOA

Agustin Kardaberaz

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

MEZA ETA KOMUNIOA

**Eta oen gañeko Doktrina
beste Debozioen Ejerzizioakin**

Aita Agustin Kardaberazek Animen onerako emanak

Tolosan: D. Franzisko de la Lama Etxean



IHS

IRAKURLEARI ABISOA

IRAKURLE ONA: Ez arren bereala, askoren gisa ikaratu: Liburu bat idiki orduko, guztia beren gustora ezpadago, itxi nai dute. Zuk orrela izan bear ez dezu: guztia berela aditzea, orren erraz ez da. Elizako gauzak, edo Doktrina aditzeko, gauza asko Latiñetik artu bear dira: Meza santuak, eta komunioak, guk esan al baño Misterio ezkutatuagoak dituzte: gure ditxa guzien iturri orijinal, edo jatorrizkoak oriek dira. Fede, eta gogo onaz irakurten asi zaite, eta laster, edo nola eztakizula, Elizako Doktrina, ta Misterio andiak gustoz, ta debozioaz, diran guztiak adituko dituzu.

Bizkaitar asko gogotik asi, ta beren modura, ta gurera txit erraz, ta laster egin dira. Igaz irakurten batere etziekien Neskatxa baserriko bizkaitar bat aurten Euskerazko ondo ilteko Librutik bere Aitari, Piedade, ta debozio miragarriaz, iltzen lagutzen, Kura Jaunak, eta beste askok arriturik ikusi dute. Onek, ta beste baserrietako askok, Jaietan bakarrik lezioa artu, eta bestebage, ederki ikasi dute. Nagi alperrai ez zuk sinistu. Dotri narik ere euskeraz ikusi nai ez dute: ta Jainkoaren bildur bage, nai dutenai ere gogoa kenzeko gogoak ematen dien guzia, Euskeraren kontra esaten dute. Aurrak erraz ikasten dutena, berak lotsaz, edo lotsagabe ikasi nai ez dute. San Agustinek ziona: Onai jarraitzeaz lotsa gera, eta onai ez jarraitzeaz lotsa ez gera.

Anima bada, Kristau ona: Irakurteari gogotik ematen badiizu, egiña dago guztia. Naiz Bizkaitarra, naiz emengoa zerala: Itz guziak berealokan ez adituagatik, laster orretara, ta ondo aditzera egingo zera. Guk Eskolan Kartillako Orazioak, Miserikordiazko obrak, eta Kontrizioko Akturaño, zer esaten genduen ez genekiela, goiz guzietan kantatzen ginduzen euskeraz; ta arratsaldeetan erderaz. Eskola Maisuak au kontuz eragiten balute, guzien buruetan ezer kosta bage, laster, eta ondo Orazio guztiak sartuko lirake: eta buruz dakiten ori ederki iraburriko luke. Bide erraza; goizean Euskeraz, arratsaldean Gaztelaniaz Kartillako Orazioak irakurri ondo, eta Liburu guzietan Maisu, eta Dizipuloak irakurten seguru jakin-go dute.

KRISTAU ONAREN DEBOZIORIK SANTUENAK, ETA ORIEN DOKTRINA

Santuakiko Kristabaren debozioa zer edo nola dan, Jesus Maria, ta Joserren debozioko liburuan esan zan. Orain bear dan argiaz gure biotzak gorago jasotzeko, Meza, ta Komunio Santuaren, eta orietarako bear dan orazioak agertu, eta guzien begietan paratu bear degu. Ejerzizio dibino oien Doktrina, edo argiaren premia zein andia dan, ondoena dakite Konfessore Jaunak, eta oien zelo guztiaren bear naiz. Kristau onak Meza ikusten dute, ta Komulgatzen dira; baña zer dan Meza, nola Komunioa artu bear dan, eta nola Orazio egin bear dan, txit gutxik dakite.

Eskolarik ez duten anima asko, eta Jainkoaren gusto, eta atsegin andikoak intenzio, ta borondate santuaz beterik gure jende oen artean, edo bazter, eta arkaitz arte orietan daude. Aita espiritual maite askok, Konfessore onaren egitekorik bearrena zer dan, badakite: Au da, ez dakiten oriei Zeruko bidea banaka konfesonarioan erakustea: Gure Nekazari onai bear duten Doktrinaren argia, eta eskua eman, ta lagundu beren intenzio, eta espiritu garbiak Zerura jasotzen: Eta nola beren obra, eta nekeak goizetik Jainkoari egindu bear diozkaten: Ta beren lan, eta bearren artean noizean bein beren biotzak altxatu bear dituzten: Meza Santua nola enzuten dan: Zerurako bizitzaren, edo Jesusen Pasioko Misterioetan zer frutu andia guretzat dagoen; Konfessio, eta Komunioan nola ori guztia bakoitzak artzen duen.

Ditxa oiek iristeko erakutsi bear zaie, nola beren animaz, edo memoria, entendimtu, ta borondateaz baliatu bear duten: Eta baliatze au da biotzeko Orazioa, edo Meditazioa, edo orren bide erraela. Onen gaiak, eta reglak liburu askotan erderaz arkitzen dira. Euskerazko Ejerzizioetan bearrenak eman ziran.

Jaunaren, ta Ama Birjiñaren Misterioen gañean Orazio onen gaiak ematea, gauza erraza da. Baña, nola geienak irakorten ez dakiten, eta dakitenak gogo gutxi duten: Gure pobretxoentzat beste biderik arkitzen ez det, Konfessoreen zelo, ta pazienza baizik, askok egiten duten bezela, Konfesonarioan banaka bakoitzari ondoen dagokion neurrian lekzio, ta erreglak ematea: Ta au berau Jesusen Biotzeko ejerzizioetan ondo adierazotzea.

Askorentzat Orazio au egiteko denborarik onena da Meza santukoa; zerren beste libre, edo obeagorik ez duten. Oraziorako bide, eta modu



asko dira. Anima batzuek goragotik, besteak beragotik Jaunak beregana daramazki; Baña guztiai berdin bere biotza eskatzen die, eta berekin, eta beretzat guztiak nai ditu Ala berak erakutsi, ta agindurikako Orazioan guziok esaten diogu: *Betor gugana Zure Reinua*. Onetan fedeko argia, ta graziako Erreinua aditzen da; zerren gure Jainkoa ezagutzean, eta amatzea egiazko Erreinua dagoen; Lurrean beraren grazian, ta Zeruan beraren glorian. Erreino onetan sartzeko bidea, badakizu, Sakramentuak, Meza, obra onak, Orazioa, eta beste Ejerzizio santuak dirala.

Askok oien artean, santuen debozioa Bederatziurren, edo Noben-tan daukate. Gauza ona da; baña begira zuk ondo, eta konseju erraz au seguru gorde zazu. Ama Birjiña, edo Santuak onratzeko, eta zure, edo besteen trabaju, edo animako nekeetan, oriek bitarteko nai dituzunean, libru, edo errezo luze-gabe, zure gusto, eta era oneko bederlatzi egunetan, ondo ziñatu, Kontriziozko Aktua biotzetik egin, ta *Pater Noster*; *Abe Maria*, ta *Gloria* bat egunero, baña Fede bizi, Esperantza firme, ta Amorío aundiaz esazu; Eta nere kontu Ama Birjiñaren, edo Santuen bitartez Jainkoak seguro adituko zaituala; Zure eskaria egin ezazu onela: «Ama Santissima, edo N. Santu, nere bitartekoa: Onelako premian aurkitzen naiz: Neretzat, edo urliarentzat, nik eskatzen dizudan onelako faborea, alkanza zadazu». Ta asko da au Jainkoak, eta bere Santuak zu aditzeko; Eta horra Nobela erraza.

Oraziorik dibinoenak *Pater Noster*, ta *Abe Maria* dira. Esan dan fedez erreztatzen badezu, edo eskari bakoitzean zer eskatzen dezun ondo pensatu, ta biotzean pisatuaz, Zeruko meditazio, edo Oraziorik onena egingo dezu. Zuk soseguz au egitea da Orazio mentala. Santuak ainbeste alabatzen, eta zure onerako agintzen dutena. Eta ona, Konfesore Jaunak Eskola andigabe Nekazariantzat Zeruko Dotrina, ta bidea. Sustrai onetatik Konfesioetan Jaunaren bildur Santua dator, ta beraren Legea gordetzeko, eta egiazko Penitencia egiteko gogoa; Eta gurari, edo griña gaiztoak ukatzeko animo bizi eragille bat: Eta au da Zeruko Orazio guziaren frutu ederra.

Emen dator *S. Buenaventurak* Orazioaren gañean ematen duan konsejua, ta Kristau on guziak gordetzea txit deseaten derana. Ala Mezatan, nola beste zure debozio, ta errezoetan txit soseguz, ta geldi egotea, ta isilik erreztatzea, zure aldean daudenai zure errezo, edo jolas moduakin obra gaiztorik ez egiteko. Santuak dio: *In Spec. cap. 10*. Juizio gabea, edo indiskretoa da Orazioa, bat, edo batena dala, askori obra gaiztoa egiten diona; Eta zure orazio otzak besteai beren debozio, edo berotasuna kentzea.

MEZA TA KOMUNIO SAGRADUAREN DOTRINA

Zuk onen gañean jakin bear dezuna, Trentoko Konzilio Santuan ederki erakusten da. Dotrina au guztia leku askotan dakar, eta irakurri nai duenak ikusi bitza: *Ses. 13. cap. 2. & cap. 8. Ses. 21. cap. &c. Ses. 22 cap. I. & 2. usque ad 8. inclusive*. Leku oietan dakarren Dotrina da: Sakramentu Dibino au Komunioan batzuek artzen dutela; baña gaizki, pekatariak bezela, ta beren kondenaziorako. Besteak Jaunaren grazian, ta ondo egonagatik ere, komulgatzen ezdirala; baña fede bizi, eta amorio irazeki batekin beren animetan deseoz Jauna artu nai dutela: Oiek Komunio espirituala, edo deseozko onetan Sakramentuetan frutua artzen, eta sentitzen dutela. Irugarrenak berriz grazian, ta ondo Komulgatzen dirala.

Lenengoak Komunioa artzen dute munduaren begietan, baña ez Jaungoikoarekiko; Zerren pekatu mortalean dauden. Bigarrenak, Sakramentua gure begietan artzen ez dute; Baña bai Komunio espirituala, eta frutu andiak Jaunaren begietan.

Irugarrenak, Sakramentua grazian artu, eta Komunio Espirituala, ta Sakramentala egiten dute.

Dotrina ziertoa da, petatu mortalean, edo desgrazian dagoenak Komunio espirituala ezin egingo duala: Eta pekatu mortalean ori deseatzeta, pekatu andia da. Baña Jaunaren grazian zaudela, espiritu, ta deseoz santuakin bai komulga zaitezke, ala Mezatan, nola beste edozein leku, ta denboretan. Ori nola dan gero esango degu.

Dotrina ziertoa da, eta Konzilioak berak dio, naiko lukeala, Meza enzuten daudenak Sazerdotearen ondoren, Komulgatzea, Sakrifizio Dibino onen frutu andiagoak Mezatan dauden guziak artu ditzaten; Eta Kanon Sagraduak diote, lenengo denboretan, Mezatan zeuden Fielak, komulgatzen zirala. Espiritu Santuak, Konzilioak dionez, zu Mezatan Komulgatzea nai du, edolarik Komunio Espirituala, edo deseozkoaz.

Emendik lezio bat ikasten dezu, ta mundukoan artean ondo bearra, au da: Kristau onak sarri, edo askotan Konfesazten, eta Kotnulgatzen ikustean, orien kontra ez gaizki itz egitea. Obe da askotan Komulgatzea, bakan bano. Eleiza Santak ori nai zuen, ta egiten zuen Mezatan zeudenak Komulgatzea. Jesu-Kristok bere biotzeko amorio guziaz ori nai du, bera-ekin bat egin, eta izateko; Eta, Konzilioak ugari Doktrina au Jesusen itza-



kin erakusten du, eta zuk ikusten dezu, askotan Komulgatzea zein gauza bearra dan guzionzat.

Zortzian bein, edo lenago garbitzen dan alkandora, edo arropa, urtean bein, edo illean bein garbitzen dana baño errazago, ta obeto zuritzen da. Aditzen, eta ikusten dezu: zortzian bein konfesatzen dana, errazago komuniorako zuritzen, eta prestatzen dala, illean beingoa baño. Onek illero esamen ona, damua, ta propositua egiteko ordu erdi bat bear bada, amabost egunekoak laurden bat asko du; Ta zortzian beingoak ondo prestatzeko gutxiago bear du.

Emen Konfesore jaunak lagundu ondo, damua, ta propositua zein gauza andiak, eta bearrak diran erakutsiaz, eta damu eta propositu onetan, Kontriziozko aktu asko egiñaz, jardun dezatela.

Kristau on, askotan konfesatzen zerana, ez geiegi bildurtu, ta zure konfesioetan ez atzeratu. Deabru txarrak esango dizu: zorzian bein edo geiagotan konfesazea, ondo eztala. Orregatik ez utzi: Gezurra da; Ez sinistu, Konfesore onaren esana egizu, Ara: Sentitzen dezu Jaunaren deia esa-ten dizula: Konfesa zaitetz biar. Egizu bada, aditu dezun ori. Ta zure yildurren artean kontu zierto au egin ezazu; Konfesatzeko, abiso, argi edo gogoa datorkizunean, siniste osoan zaude; Zeruko inspirazio orrekin Jesus maiteak eskutik artzen zaituela, Aita amoroso batek bere Seme, edo Alaba maitea artzen duan bezela. Orain bada, nork sinistuto du; onek bere ume laztana galzera, eta ondatzera eraman nai duela? Iñork ere ez. Bada gutxiago Jesu-Kristok galtzera, ta gaizki konfesatzera eramango zaitu zu. Ez sinitu, ezpada zure Konfesoreari. Oni jarrai zaiozu beti.

KOMUNIO ESPIRITUALA ZER, EDO NOLA DAN

Anima justoa Mezatan, edo bestela bere espirituaz edo deseo biziaz komulgatzea da Komunio espirituala. Eta da Jesu-Kristoren txit atsegin andiko gauza, edo ejerzizio dibiuno bat, txit erraza, eta animaren irabazi andiaz nai dezun guztian, seguru egingo dezun debozioa. Santuen dotrina da: Iñoiz komunio espiritual batean Sakramentua artzen danean baño gehiago Jainkoarekiko irabazi, edo merezi ditekeala: zerren Komulgatzen danak baño, beste Komulgatzen eztanak, debozio, edo ferbore andiagoo dadukan, ta espiritu geiagorekin prestatzen da. Ferbore, debozio, eta espiritu au nai du Jesu-Kristok, eta arrazoi andia da zuk ari orretan gusto ematea.

Eta Aita: Komunio espiritual ori nola egiten da? Txit erraz, edozein lekutan ta noiz nai. Ara: Zuk meza enzutean, edo Eleizara Santisimoa adoratzera zoazenean, edo etxean, edo bidean edozein leku, ta denboretan ekarri itzazu gogora Jesu-Kristoren Sakrifizioko misterio Dibinoak, bere Sakramentuan; Eta al dezun federik bizien, ta amoriorik irazekienaz zure biotzean deseoz komulga zaita. Au, ta ez besterik da komunio Espirituala: Aita: Baña debozio ori nola egin dezaket? Ara nola: Esan dan fede bizi eta amorioaz Biotzetik, zure modura esaiozu.



KOMUNIO ESPIRITUALA, JAINKOAK NAI DUEN BEZELA, ZUK EGITEKO IRU MODU ERRAZAK

O Nere Jesus, Jainko, Eta Gizon egiazkoa! Zure ontasunak, eta nere Amorioak Sakramentu orretan zaukatzki. Federik al dedan bizienarekin sinisten ditut, misterio onetan Zuk egiten dituzun milagro guziak. Al dedan humildade guziaz adoratzen Zaitut. Zure ofensa guziak damu ditut zerren amatzen zaitudan gauza guzien gañean. Or Zaude nigatik, Zu nik nere biotzean rezibitzeko.

O Nundik, edo nola amorio pagatuko dizut, ezpada nere espirituan; ta deseoz Zu komunioan artu, eta Zure ondasun neurri bageko oriekin baizik? Sakramentu onetan Zu ondo artu, eta betiko komulgatu nai det. Baña ori ezin badet ere, Komunio espiritualean artu nai zaitut, Zure graziarekin esker onak Zuri beti emateko. Amen.

O nere Jesus amoroso gau, eta egun nere begira Sakramentu orretan Zaudena! Biotz garbia, eta borondate ona duten animai Zure Gorputza hor ematera, etorri zera. O nere Jainko ezkutatua! O zer fabore, ta erregalo dibino, Zu nere biotzean artzea! O, eta nork Santu, ta Aingeru guzien birtuteak lituzkean: Eta Ama Birjiñaren garbitasuna, eta amorioa, Komunio espizitua onetan Zu bear bezela artzeko. Atoz nere Jesus, atoz ordu onean: Ta Zure bendizio, eta amorioz nere anima sekulako bete zazu.

O nere Jaun Soberano Sakramentatua! Betor Zure fede bizi, ta argi bero bat, nere anima, Zu rezibitzeko, ondo presta dedin. Bestela nik merezi ez det, Zu nere biotzeko Etxean sartzea. Baña itz bat esazu, ta guzia egiña dago, eta nere anima salbatuko da. Birtute guztiaz ondo janzi, ta apaindurik Komunioan beti errezibitu nai zinduzket: Eta anima guztiak Zure grazian komulgatzea nai nuke: O zer ditzal! Zu nere Jauna nere biotzean artzea! O, eta zeñi aberats izango ninzakean, Zure Sakramentuan errezibitzen bazinduzt. Nere animak Zure bearra, eta Zurekin beti egoteko gogoia dauka. Nere Jesus ona! Zu zera nere animaren egiazko bizitza; Zu bage ezin biziko naiz. Beti Zurekin bat eginik bizi, ta ill nai det, Zure eskuetan, Amen.

Fedeko, eta amoriozko Aktu asko egiñaz zere nodura, errazagoere Komunio Espirituala egin dezakezu naizun geian.

MEZA SANTUA ZER DAN

Eguzkiak Zeruko Izar guzien edertasuna estaltzen duen bezela, ala *Meza* Santuak gañez eragiten die lurreko debozio guziaz: Zergatik dan gure Relijio Santuak dauzkan gauzarik aundi, eta errespetagarriena. Baña zer da *Meza*? Da Sakrifizio, edo ofrenda Dibino, milagro betirikako bat, zeñean Jesu-Kristo gure Jaunak bere Korputz eta Odol preziosoaz ofrezitzen diozkan bere Aita Eternoari Ogiaren, eta Ardoaren antzen azpian. Da Jesu-Kristok Ostegun santu gabeen edo atzeneko afarian egin izanduan Sakrifizio miragarri ura bera. Da Gurutzean iltzean AITA Eternoari ofrendatu ziozkan tormentu, eta Eriotzaren ofrezitze berri bat. Da azkenik bere Pasio santuko dolore, pauso, ta misterioen, eta oetan erakutsi zigun amorio irazaki, neuribagekoaren akordagarri, edo oroipengarri bat.

Lau gauza jakin bear dituzu, S. Agustinek erakusten duan bezela, mezako Sakrifizio santu onen gañean. Nor da sakrifizio hau ofrezitzen duan Persona; Nori ofrezitzen zaion: Zer ofrezitzen da: Norentzat, edo zertarako ofrezitzen dan.

Orañ bada, nor da Mezako Sakrifizio Santu hau esaten duana edo Sakrifizio guziz beneragarri, eta errespetagarri hau egiten, eta ofrezitzen duan Sacerdote prinzipala? *Da Jesu-Kristo gure Jauna Aita Eternoaren Semea.*

Nori, edo zeñi ofrezitzen dio? *Aita Eternoari berari.* Eta zer ofrezitzen dio? *Bere Korputza, eta Odol preziosoa, bere merezimentu kabu bageko guziazkin batean.*

Norentzat, edo zertako ofrezitzen diozka?

Jainkoa onratzeko, eta gure onerako, mesede, eta fabore asko iristen dizkigula Ofrenda miragarri onen bidez.

S. Agustinek berak dio, mezatan gauza bi gertatzen dirala, Bata agirian ikusten dana, edo kanpokoa, eta *dira egiteko Santuak.* Bestea ikusten ez dana, edo barrengoa, ta da *Jainkoaren Semeak bere Gorputz, ta Odola Aita Eternoari ofrezitzea.* Barrengo Sakrifizio onek ematen dio kanpokoari bere izate, espiritu, edo bizia. Baña zertarako? Orain esango diran lau fin, edo gauzatarako.

Lenegoa: Gu nola laburrak, ta limitatuak baitgera, ta Jaungoikoa infinito, eta kaburik ez duana: Eta Jainkoaren Semeak nola gure naturaleza daukan, eta berez nola Persona infinito, eta kabu bagekoa dan, hau guk



ofrezituaz ematen diogu Jainkoari gugandik nai den duen, eta aren Anditarnari ondoen dagokion onra, eta gloria.

Bigarrena da: Gure Jainkoagandik rezibitu ditugun mesede, eta fabore guzien esker onak, graziak, ta alabanzak emateko.

Irugarrena da: Sakrifizio santu onen biez Jainkoagandik guretzat, eta gure adiskideentzat nai ditugun, eta konbeni diran mesedeak iristeko, ala espiritualak, nola tenporalak.

Laugarrena da: Jainkoaren kolera, eta aserretasuna aplakatzeko, aren Justiziak pekatariak bereala kastigatu ez ditzan; Eta bere miseriardiaren bidez eman deigun ausiloak, eta laguntzea estadu triste artatik irtetzeko.

Emen prebenitzen det Espiritu santuak Trentoko Konzilioan ematen duan Doktrina. I.^a Santuen onran Elizan Mezak esaten badira ere, bala Sakrifiorik Santuai ofrezitzen etzaiela; Ezpada bakarrik Jainkoari, zefia dan santuak egin, eta gloriaz, eta onraz koroatu zituena. II.^a *Santustik* aurrera Mezeko gauza guziak Jaungoikoaren santidade aundia aitzeko ematen dutela, edo Misterio oriek Zeruko usai dibinoa dakartela. III.^a Espiritu Santuak Konzilioan aginzen die (*Mandat S. Sinodus &c. Ses. 22. cap. 8*) Animen kontua daukaten Kurai. Meza Santuko gauzak beren Ardai askotan erakustea. Sazerdotearen ornamentu, edo janziak, itzak, gurutze, señale, ta zeremonia guziak misterioz beteak daude. Euskaldunak beren deboziorako, oriek al dan ondoena jakitea, arrazoi da: Ta Santuen dotina oraiñ nik emango diet onela.

MEZATAKO MISTERIOEN DOKTRINA

Sazerdotea prestatu, ta Ornamentuak jatzeko Sakristian sartzeak esan nai du, nola Jesu-Kristo Ama Birjiñaren sabel garbian sartu zan, eta gure aragizko soñekoa jantzi zuen eta bere Sakrifizioa Aita Eternoari ofrezitzeko prestatu zan.

Amitoa da estalki zuri bat, burutik bera Sazerdoteak artzen duana: Eta esan nai du, nola Juduak Jesu-kristori burla egiteko, ta bofetadak emateko arpegia estali zioten.

Albak: Nola Kristo zuriz janzirik Erodesek burlaz Pilatosi bialdu zion.

Zinguloak: Nola sokakin gugatik lotu zuten.

Manipulo ezker besokoak: Nola azotatzeko eskuak lotu ziozkaten. Ezkerrean ori artzen da, Jesusen biotzeko amorioa gugatik azoteak artzean, eta guk zor diogun amorio aundia erakusteko.

Estola lepotik gurutzaturik artzen du: Eta esan nai du, Jesus irugarren aldian, Gurutzea artzeko Soka gogor aundiakin lepotik lotu zutela.

Kasulla guzien gañean artzen danak: Nola burla egiteko, Granazko soñekoa janzi zioten: edo Gurutzean jositzeko, nola tunika joskura-bagea kendu zioten. Jantzi, edo *Ornamentuak* oiek dira.

Mezak iru parte ditu: *Ofrendaraño* bat. *Pater-noster*, edo *Komuniora*, bestea: Eta *azkeneraño* bestea. Bata da Sakrifiziorako prestatzea: Bestea ofrezitu, konsagratu, eta komulgatzea. Irugarrena da Jaunari graziak ematea.

Aldarean sartu, eta Sazerdotea asitzen da: *Aitarean, eta Semearen, eta Espiritu-santuaren izenean Jainkoaren Aldarera sartuko naiz*. Ministroak esaten du: *Nere anima alegratzen duen Jaungoikoagana*. Eta orrela biak esanaz dijoaz. Sazerdoteak pekatariak bezela *konfesioa* esaten du; Ta esan nai du, nola Kristok bere gañean gure pekatuak artu zituen.

Kirie eleyson: Jauna miseriardia esan nai du; eta bederatz bider eskatzen zaio, Kristo gu salbatzera etorri arteko gure miseria andia erakusteko, eta Linboko Santuen deseoa, eta eskari biziak.

Gloria in excelsis Deo: Kristoren etorrera esan nai eta jai zanean Aingeruak Gloria kantatu ziotela.

Dominus boviskum: Jauna zuekin izan dedilla. Erantzuten da: *Et kum spiritu tuo*. Bai ta zure espirituarekin ere: Eta gero Sazerdoteak Orazioak guzien izenean beti esaten ditu.

Epistolak Lege zarreko Dotrina, eta S. Juanen penitenziako bidea.



Ebanjelioak Kristoren graziazko Legea esan nai du. Gurutzea Liburuan egiten du, Kristo kruzifikatua predikatzeko: bere bekokian, aoran, ta bularrean iru gurutze txikiak; Eta ori bera zuk egizu, Jesus Kruzifikatuaren Fedean bie, ta ill nai dezula erakusteko. Ebanjelioa zutik enzuten da, gure Fede, eta Legearen profesioa, eta gure debozioa erakusteko.

Kredoak: Esan nai du Ebanjeliotik aterazen degun frutua, eta nola Fedeko Artikulurik, eta Misteriorik nagusienak Ebanjelioan ezagutzen, ta konfesatzen ditugun. *Kredo*a esazu. Eta au da Mezako lenengo partea.

Bigarrenean, Sazerdoteak geld, edo isill itz egiten du, eta esan nai du, nola Kristo bere Pasioan ofrezizeko isildu zan;

Ostia, ta Kaliza ofrezitzean, Zure biotz guztiarekin zuk ere ofrenda itzatzu. Eskuak garbitzean Sakrifizio onetara prestatzeko gure animak bear duten garbitasuna aditzera ematen da.

Orate, fratres esatean, Misterioarekin Orazioa egiten du:

Prefazioa, da Sazerdotea, eta han daudenak Sakrifizioarako prestatzea, beren biotzak Jaunaren alabanzakin Zerura jasoaz: Eta guziak Kristoren etorrera santifikatzen dute: *Sanctus, Sanctus, Sanctus, &c*

Kanon Sagraduak Regla esan nai du, ta Sazerdotea asitzen da Aita Eternoari Jesu-Kristo bere Semeagatik eskatzen, Sakrifizio au har dezala Eleiza Santagatik, Aita Santu, Obispo, Errege, ta Fiel guziak-gatik.

Memento: Emen isilik biotzak-gatik eskatzen dit; eta zuk ere eskatu bear dezu. Gero Ama Birjinari, eta Santuai deitzen die.

Ostiaren, ta Kalizaren gañean gurutzeak egiten ditu, Kristo gurutzean josi zutela aditzera emateko: Konsagrazioarako debozio, eta soseguz jartzen da, ta Jesu-Kristoren *itz Dibinoak Ostiaren eta Kalizaren gañean esaten ditu*, eta berak Kristoren Gorputz, ta Odol preziosoa adoratu, ta zuk adoratzeko, Gurutzean gora jaso zuten bezela, agirian altxatzen ditu.

Gero Kristoren Misterioak isilik, gogora dakaizki, eta Aita Eternoari bere Semea berriro ofretzitzen dio: Ostia, ta Kaliza bedinkatzen ditu, eta Fiel guziak-gatik Orazio egiten du.

Memento &c Difuntuak-gatik eskatzen du, ta zuk ere eska ezazu: Santuak bitarteko gure fabore artzen ditugu, gu aien lagun izan gaiten.

Ostia jaso, eta Gurutzeak egiten ditu Kalizaren gañean, Trinitade Santisimoari onra eta Gloria guztia emateko.

Pater noster esaten du: Eta zuk ere debozio andiaz esazu.

Pakea ematen du, ta iru Orazio txit debotoak Jesu-Kristori esan, ta Sazerdoteak komunioa artzen du, edo Ostia, ta Kaliza: Orazioakin guziak eman, eta Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren bendizioa han daudenai ematen die.

San Juanen azkeneko Ebanjelioak esan nai du: nola Kristok bere Apostoluak munduari Ebanjelioa predikatzera biraldu zituen. Eta au da Meza Santuan egiten, ta esaten dana.

Baña nola Sazerdotearekin batean zuk ere ofrezitu bear dezun, ez dezu alperrik egon bear: Biotzeko, edo aozko Orazioa egin bear dezu; eta aozkoa bada, geld, edo isillik, besteai obra gaiztorik egin bage. Andre Eleizan deadarka egoten diranak, Konseju onen bearra badute.

Asko laguntzen du debozioarako Meza, eta beste orazioetan soseguz, begiak itxirik, edo lurrean ta isillik, edo lurrean ta isillik egoteak. Pasioko Misterio, edo Pausoren bat Mezatan pensatzea, ta aoz, edo biotzez zerbait errezatzea, gauza santua da. Eskeko pobrea zera, eta guziok ala gera.

Ondasun guziak Meza Santuan daude, eta ala zure eskuan. Eskatzen edo artzen ezta kien, nor da?

Bada Jaunari eskerrak eman, eta zure animako edo etxeko trabajuen erremedioa eska zaiozu. Meza guztirako Pater noster bat biotzetik esate, asko dezu, orren zazpi eskari, edo petizioak, ondo pensatuaz. Mesede, ta grazia guziak eskatzeko, ta seguru alkantzatzeko, Mezako denbora da onena. Dotrina ziertoa da, Meza santua zuk ondo enzuteko debozioarik onena dala, Sazerdotearekin batean zuk ere Sakrifizio au ofrezitzea. Misterioak esan dira, eta bakoitzaren Orazio laburtxoak oraiñ esango ditut, uts egin ez dezazun, eta itotzen, da presaka etzabiltzan; Zerren obeago dan izan dedin gutxi, baña fede, eta debozioz esana edo egiña.



MEZA ENZUTEKO MODUA, ETA ORAZIOAK

*Belaunikatu, debozioz ziñatu;
eta esazu onela.*

Nere Jaun Soberanoa: Zure Aldare Santura ur-ematea, nik ez det merezi; Baña Zure ontasunak nakar. Zure Etxe, ta Tenplora sartuko naiz bada ta nere biotz guztitik adoratuko zaitut. Ona Zure diñako Sakrifizio, edo ofrenda bat nun agintzen dizudan, Zure begietan dan ederrena, eta Zure biotzeko gloriarik aundienerako.

*Sazerdoteak Meza asitzean
zuk ere esazu.*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean, Amen Jesus. Ni pekataria &c. Al dezun damurik aundienaz Konfesio hau egizu.

Kirie eleyson esatean. Jauna miserikordia nizaz, bederatzi bider esazu.

Gloria in excelsis Deo.

Aingeurak alaba dezatela, Jauna Zure ontasuna, Zu jaio ziñanean bezela. Orain gure animetan Zure graziaz jaio nai dezu. Alabatzen Zaitugu, bedeinkatzen, adoratzan, eta Glorifikatzen Zaitugu, Zure Gloria aundiagatik graziak ematen dizkitzugu. Gure kulpen barkazioa eskatzen dizugu. Misericordia, Jauna, bada Zu zera Aitarekin, eta Espiritu Santuarekin batean gure Jesu-Kristo, Jainko bakarra, Amen.

Orazioak esatean, zuk ere esazu, Jauna, Sazerdoteak Santuen bitartez eskatzen dizuna, nik ere eskatzen dizut, Amen.

Epistolan.

Gure Jesus, Maisu bakarraren aurrean guziak isill bitez. Atoz Jauna, ta itz egidazu: Indazu nere animan Zure Profeta sarituen zelo, eta amorioa. Zure promesak kunpli ditezen, Amen Jesus.

Ebanjelioan.

Lurreko bide triste onetan nabillen artean, Jauna, gaina bi txit bear ditut: Argia, eta janaria. Ez arren oriek niri ukatu. Zure Ebanjelioko Dotrina, nere pausoen argi izan bedi, eta Zure Gorputz Dibinoa nere ani-

maren janaria, emendik Zeruraño falta zadan bideañ erori ez nadin Amen.

Kredoan, zuk ere ori esatea da onena; Baña debozio guziaz, Aposto-luak eman ziguten Zeruko Dotrina bezela. Gero esazu: Jauna, Zuk Eleiza Ama Santari erakutsi diozun Fedeko egia guztiak sinisten ditut. Indazu grazia nere biotzeko obra guziak Fede bizi batekin; eta gero oien premioaka zurekin bizi naklin Amen.

Ofertorioan

Ostia, eta Kaliza Sazerdoteak ofrezitzean esazu.

Jaun Soberanoa: Zure Semearen Sakrifizio hau Sazerdotearekin batean Ofrendatzen dizut Zure Gloriarik aundienerako: niri, eta mundu guziari Zuk egindako mesedean graziak emateko: Nere, eta mundu guziaren pekatuen satisfaziorako: Neretzat, eta nere obligazioko guzientzat bear ditudan fabore, eta grazia guziak Zugandik alkazatzeko: Zure Seme-gan Jaunagarik, Amen Jesus.

Orate fratres.

Guzien Orazioa eskatzen du, zuk ere esazu.

Zure Semearen Sakrifizio au Sazerdotearen eskuetatik ar ezazu Jauna, Zure alabantza, ta Gloriarako, gure onerako, eta Eliza Santa guztiaren probetxurako, Amen Jesus.

Prefazioa.

Da biotzak Zerura jasotzeko, ta Aingeruakin Jaungoikoa alabatzeko, ta zuk ere esazu onela.

Jauna, alabatzen zaitut Zeruko Aingeru guziakin. Gugana etorri nai dezu? Eman nai dizkitzut bada biotzetik ongi etorri, eta bedeinkazio guztiak. Santua, Santua, Santua, ta gloriaraz betea Zaude guretzat Jauna Zurea da Gloria, Amen.

Memento.

Sazerdoteak bezela zuk ere esazu zure boitzean.

Zure Seme Jesu-Kristogatik eskatzen dizut Jauna, Eleiza Santagatik, Aita Santu, gure Obispo, Errege, ta beste Fiel guziakgatik: Nere Guraso, senide, aide, eta adiskide N. onelakogatik, ongille, eta gaizkille, eta pekatari guziak-gatik, Zure graziara biurtu, ta Zu amatzen guziok beti bizi gaitezen, Amen Jesus.



Ostia

Kristoren itzakin konsagratzen du, eta altxatzean, esazu onela.

Adoratzen zaitut Jesus nere Jainkotzat, eta Ostia Santa orretan adoratzeko Zure Gorputz Sagradua, Gurutzeko Aldarean, mundu guzira redimitzeko, izandu zana. Sinisten det, Zu or zaudela.

Kaliza

Adoratzen det, Jauna, Zure Odol preziosoa, gure amorez Gurutzean isuria, gure animak garbitzeko Zuk emana. Odol prezioso orretan esperatzen det, nere kulpen barkazioa izango derala Amen.

Gero esazu: Zuk nai dezun bezela Jauna, Sacerdotearekin, Sakrifizio hau agintzen dizut, Zure Semearen Pasio, ta Eriotza, Resurrezio, eta Asentzio Gloriosoaren reberenzian. Ostia garbia, Ostia Santa, Ostia mantxagabea. Jauna ez begira guri, ezpada Zure Seme maite oni, Zure bendizioaz, onekin bat egin gaitean, Amen.

Memento

Emen Difuntuak-gatik, leen biziak-gatik bezela eskatzen da: Zure anima Fielak N.N., ta N. Zure Gloriara, eraman itzazu.

Pater Noster

Zuk ere esazu, onen zazpi Eskariak soseguz pensatuaz. Eguneroko Ogia eskatzean, aditzen da, gure obligazioak ezagutzeko argia: Sakramentuen ausilioak, eta laguntzea, animak estatu Graziatzekoan irauteko: Ta gorputzarentzat alimentua Amen.

Agnus Dei

Zuk esazu: *Jainkoaren Bildots garbia, Munduko pekatuak kentzen dituzun Jesus ona, miseriak guzaz.* Iru bider au esazu, ta irugarrenean esaten da, Jauna Zure pakea iguzu, Amen.

Komunioan

Zu zera Jauna, gure pakea. Apostuluai eman ziñien bezela, Eleiza Santari, eta guru iguzu, gure gaitz, ta peligro guzietatik libra gaitzazu, Zure borondatea beti egiteko, eta Zugandik inoiz ere ez apartatzeko grazia iguzu, Amen Jesus.

Domine non Suma

Sacerdoteak dionean zuk esazu: *Jauna nik merezi ez det Zu nere Etxean edo animan sartzea, baina itz bat esazu, eta nere anima salbatuko da.* Iru bider au esaten da, ta Jaunaren grazian zaudela, Komunio espirituala, len esan dan bezela, Fede biziak egin ezazu.

Jauna, nik nai det nere espirituaz Komulgatu, eta Zu betiko artu..

Gero komunio santuagatik Jaunari Sacerdoteak bezela, graziak eman ta bendizioa artu, ta zuk esan bear dezu; Jauna, baldin Zu beregan artzen zaituena, Zuk zere Seme edo alaba egiteraño jasotzen badezu, San Juan Zure Ebanjelista maiteak dionez, arren niri ere fabore au egirazu. Eta nere naturaleza onek gaitzerako daukan griña makurrak atzeratu itzatzu. Zure graziaz Konfesioko Sakramentuan berriro janzi nazazu, Komunio espiritualetan beti Fede bizi eta amorio irazeki batekin rezibitu zaitzadan, beti beti Amen Jesus.

Orra Kristau ona, Meza, ta Eleizako orazioak, zuk nai dituzun modu laburrean.

Zuk bada baserri jende onak Jaunari zuen lan, eta bearrak goizero ofrezitzean gogoia, eta intenzioa ar ezazute mundu zabalean esaten diran Meza guziak enzuteko, bakoitza ikusten bazeunde bezela: Eta Aita Eternoari fede biziak ofrezte zaiozute beste obrak bezela, beraren onrarako: Guri egin dizkigun mesedeen eskerrak emateko: Gure pekatuen barkaziorako: Eta guk bear, eta eskatzen ditugun faboreak alkanzazeko.



ONDO KONFESAZEKO EJERZIZIOA

Konfesatzeko gogoia Jaungoikoak ematean, fabore andi bat egiten dizu. Intenzio ori zuk artzean zeregana bereala, ta zure biotzean sartu bear dezu, eta bakartasun orretan pensatu Sakramentu onetan pekatuetatik Jainkoagana biurtzeko, bear dezula: I.^a Beraren Grazia beti prest dagoena. II.^a Prestatzeko denbora. III.^a Dilijenzia, edo zure ekin naia, Jaunari bere ofensa guzien damu andi bat eskatu bear diozu, eta konzienzia ondo esaminatzeko grazia, esanaz.

ORAZIOA

Nere Jaungoiko guziz ona: Nere gaitz guzietatik Zugana biurtu nai det. Baña orretarako nere pekatuen illuntasun onetan Zure argi, bear naiz. Mundu galduaren argi, ta erremedio bakarra, Zu zera. Zure miseriak aundiagatik, arren Jauna nik bear dedan argia indazu, nere Konzienzia illuneko bazterrak ondo ikusteko, eta nere kulpak, bere animan diran bezela, ezagutzeko. Betor Zure grazia, oriek ondo pisatu, eta eskatzen duten damu, ta proposituaz bear bezela konfesatzeko. Ori Jauna, deseatzten det, ori erregutzen dizut, eta ala uste det alkanzatzea Jesu-Kristo Zure Seme Jaunagandik, Amen Jesus.

AMA BIRJIÑARI TA SANTUAI ORAZIOA

Zeruetako Erregiña Jainkoaren Ama txit Santa, eta pekataria Zugana negarrez datozen guzien miseriak Ama, gurutzearen oñean Zure Semearekin nigatik igaro zinduzen penak-gatik, eskatzen dizut, artu nazazula Zure anparoaren azpian, beraren Pasio eta merezimentu santuaz konfesio onetan ni aprobetxatzeko. San Jose guziz doatsua, Jesus, ta Mariarentzat bitartekorik maiteena, biakin egizu nere pekatuen damu egiazko bat alkanatzeko. Zeruko Santu, eta Aingeru guziak, eta Zu nere Aingeru guardakoa, erregutu ezazute, Penitenziako Sakramentu Santu au ondo artzeko presta nadiñ, Amen.

EXAMINA

Jaunari graziak onela eskatu, eta esaminatuko dezu zure konzienzia modu onetan: Jainkoaren Legeko mandamentu santuetan, pensatuaz zenbat pekatu zierto, eta dudan egin dituzun mandamentu bakoizaren kontra pensamentuz, itzez, ta obraz. Gañera pensatuko dezu, zeran aundi

naia, nagia, Jainkoa serbitzeko, pazienza gutxikoa, projimoakin enbidio-soa, edanaren, eta janaren zalea, jokularia, ta griña oek dirala bide egin, edo eragin dituzun pekatuak. Ta azquenik zure estadu, ofizio, ta obligazioai kunplimentu bear dan bezela emanaz, egin, ta eragin dituzun pekatuak.

Esamina ori soseguz egin, eta segitzen dira Konfesioaren parterrik prinzipalenak, zeñak diran *Dolore, eta Propositu egiazkoa*, eta oien faltaz egiten dirade gaizki Konfesorik geienak.

Dolore au bada iristen da, Jainkoari eskatuaz; zergatik dan sobrenaturala, gure alegiñarekin logratu ezin ditekeana: akordatuaz Jainkoaz: aren egin dizkigun mesedeaz: Ta guk Aren kontra egin ditugun gaizakeriaz.

Nor du bada gure Jaungoiko? Da Zeruaren, ta lurraren kriadore, eta oetan ikusten, eta ikusten ez diran gauza guzien egilea. Jaun bat guziz Poderosoa, guziz Ona, guziz Santua, guziz Justoa, guziz Misericordioso, Aberatsa, Jakitsua, Edertasuna bera, Biguña, Piadosoa, Amorio onez betea, Aundia, Doai, ta perfezio dibinoz betea, eta guzietan kaburik ez duena. Da Jaun Soberano bakarra, Errege guzien Erregea, gure Aita, gure Ongillea, gure animen jabea, gure Adiskidea, gure Nagusia: Eta gu guziok Jainko Aundi onen humeak:

Eta zer mesede egin dizkigu? Asko, eta partikularmente egin gaitu, berak gozatten dituen ditxa guziak guri Zeruan agertzeko, eta emateko:

Eman digu osasuna, indarrak ikusteko, itz egiteko, aditzeko, eta ibiltzeko grazia. Sortu gaitu Kristau errian, bere eskojituen artean, eta ez Moro, Turko, eta Jentillen artean. Urte askoren buruan konserbatzen gaitu, gaba, eta eguna, astea eta jai emanaz, Uda-berria, Negua, otza, eta beroa, alimentua, ta janzia emanaz; Eta bearbada pekatu asko bitartean egiten ditugula, zeñakqatik merezi genduan infernuan aspaldi egotea.

Gugatik Sakramentu Santuak egin ditu, aetan gure animak sendatzeko, eta beraren grazian irauteko, erremedioak ipintzen zituala. Ta azkenik guri mesede oek egiteagatik nai izan zuan Jainko guziz Aundi, eta On onak Zerutik Lurrera jetxi, emen Maria Santisimaren Entrañetan gizon egiñik, trabaju aundiak sufritu, Zeruko Doktrina gizonai erakutsi, traidore, eta gizon gaizto bat izan baliz bezela nai izandu zuan saldua izatea etsai gogorren eskuetara, oen artean desprezio, ta golpe asko sufritu, alako azote, ta Koroatze kruela isillik, eta pazientzia eraman, ta azkenik lapur biren erdian Gurutzean iltzez josirik eman zuan gugatik bizitza.

Orañ bada nola eranzun diogu gure Jainko ongille aundi oni? Nola portatu gera igaroko urteetan? Gure gazte denboran: Igaz, aurten, eta oraindaño? Ai! Ez da ni baño billabagorik. Ez da ni baño ezagueraz gaiz-



toagokorik. Damu det Jauna nere biotz guztitik Zu ofenditua. Ez geiago-ren geiago Zure ofensarik. Bertatik arako etxe, ta lagun gaiztoetatik apartatu nai det, zeñakin juntatu ezkeru beti, edo geiengan pekatuetan erorten ninzan. Bertatik apartatu nai det edanetatik, tabernan egotetik, egurreta, eta beste jan, edanetako funzioetatik: Ala proponitzen det, zure graziarekin batean: Zerren ni argala naiz, eta eroriko nintzake, Zure grazia bage. Bertatik Jauna asmoa artzen det ordu laurdentxo batean bezela egunero nere buruan erabiltzeko, Zuk egin dizkidatzun mesedeen memoriatxo bat, Amen.

Zure biotza urratzeko, eta Jainkoa ofenditutako damuz betetzeko pensatu itzatzu askotan esan ditugun mesedeak. Eta aurrenekoan ezpada bigarren, edo irugarren aldian berotuko da zure biotza Espiritu Santuaren Su onekin.

IRU KONSIDERAZIO

Sakramentu onetan bear dan frutua ateratzeko konfesio guztietan iru gauza ondo pensatu bear dituzu.

I.^a Edozeiñ Konfesoreren oñetan jartzean Kalbarioko mendian Jesusen Gurutzepean arkitzen zerala.

ORAZIOA

Ai Ostiral-santuz ni arkitu baniz, zer negar, zer deadar Biotzekoak egingo nituan! Ai nere Salbadore maitea, nere pekatuak ipiñi Zaituzte estadu triste orretan. Ez Jauna geiago pauso gaiztorik, baizik bizitza berria: Ala ematen dizut itza Zure graziarekin batean, ta esperantza osoa dadukat barkatuko dirazula nere bekatuak Zure merezimentuak dirala mediante.

II.^a Konfesatzera zoazen guzian, Federik bizienaz pensa ezazu, ez gizon baten, ezpada. Jesu-Kristoren oñetara zoazela.

ORAZIOA

Ai Jesu, nere biotzekoa! Baldin Jerusalemen Zure egunetan bizi izan baniz, edo Zu orain orduan bezela, emen agertuko baziña, Zure oñetan belauniko jarririk, ta nola esango nizuke: Ona, Jauna pekatariarik galdue-

na: Pekatu mortal askoren enfermedade kruelen azpian ondaturik arkitzen naiz. Zu zera nere animaren medikua. Zuk dakizu baño obeto nere gaitz guzien berri. Arren Zure miseriardiagatik senda nazazu. Ba noa bertatik, Zuri nere pekatu guziak Zure ministroaren oñetan aitortzera, eta Konfesatzera. Ta Zuk nola nere berri dakizun, ez lotsa, eta ez bildurrik izango det, nere barren guzia agertzean.

III.^a Konfesatzen zeran guztian kontu egizu ori izango dala azkenekoa, eta illtzeko Konfesatzen zerala. Ill-bearra fedeko gauza da, eta Konfesio gabe ezpazoaz, au, edo beste bat izango da zure atzenekoa.

ORAZIOA

Ai nere biziaren, ordu ta denbora guzian jabea! Zuk esango baziñit, au dala nere atzeneko Konfesioa: Illtzeko zorian nagoala: Bereala bear derala, edo nere Aingeru Guardakoak Zuregatik mandatu au egingo balit: Ea, oraiñ konfesatu, eta bereala ill bear dezu: Etzera geiago konfesatuko. Jesus milla bider. Adio esango zenduke, adio mundua: Ken ken ortik nere lagun falso, eta gaiztoak, kanpora sekulako nere biotzetik oitura gaiztoak: Zoazte emendik, ondasun gaizki eramanak, zoazte nere ibillera gaizto, eta munduko atsegin gezurtiak: Zoaz jan, edan gaiztoak; anima, eta gorputza galdu dirazuna: Zoazte guziok oraindano zoratu, eta galdurik iduki nazutenak. Zoazte betiko nigandik: Ill bear det. Jainkoak ala dio, ta ala nai du. Ai nere Jesus ona nere jabe maitea: Ta zeñi damu dedan zu nere bekatuakin ainbeste bider ofenditua. Damu det lenago bear bezela ez prestatua. Zu nere Jainko, ta nere Aita ona, amatu, ta serbitu bearrean ainbeste bider ofenditu zaitut.

Nun da Jauna nik eman bear nizun onra, eta errespetoa? Nun da nik zuri bear nizun amorioa? Etzan nerezat onrari asko zure seme izatea? Bai nere Jesus ona. Damu det Jauna nere biotz guztitik zu ofenditua, zergatik zeran orren ona Santua, ta amablea. Zuan Jauna, arkitzen dira Zeruko Santuak, eta Aingeruak, ta kriptura guziak sekulan eziñ esan, eta konprendituko ez dituzten exzelenzia, grandeza, ta perfezio guziak. Zu orrelakoa izanik, damu det Zu ofenditua bakarrik, Zu zeranagatik. Atzeratuko ditut nere aztura, eta eitura gaizto guziak, eta egingo det penitentzia nere pekatuen bengantzan, Zu maite zaitudala adierazten dedela ondorengo bizi modu berri batekin, Amen.

Onela prestatu naiko dezu illtzeko denboran. Bada kontu ori oraiñ egizu, eta kontu ondo prestatuko Zerala, eta egingo dituzula ondo zure Konfesio guzi guziak.



Oraindano esan danetik ezagutuko dezu, esamina konzienziakoa egin, eta beste bage Konfesatzera dijoazenak, gaizki Konfesatzen dirala dolore, eta Proposituaren faltaz zeñak diraden parterik prinzipalenak: Eta Konfesio jeneral bat egiteko premian arkitzen dirala.

Gañera Dolore, ta Propositu au iristeko, bear da askotan denbora geiago, konzienzia esaminatzen baño.

Bezperatik, edo lenago lan onetan jardun gabe, goizean lasterka jantzi, eta Eleizarako bidean egiten dezun esamina, eta dolore ariñarekin beste gabe bereala Konfesatzea, da gauza peligr osoa: zerren presaka, eta espazio bage nekez ondo egiten oi diran gauza oek. Beintzat naiko etzen-duke iltzeko orrela prestatzea.

Lenagoko pekatuak barkatuak egon arren Konfesio ona dala bide, aen, eta beste guzien gañean, artu bear da Dolorea, Konfesatuak ez baleude bezela.

Gero Konfesorearen aurrean belauniko jarririk, ziñatu zaite, eta esan biotzetik: *Ni pekataria*, edo *Nere Jesukristo Jauna*, eta gero arrimatuko zera Konfesoreagana modu onetan, eta esango dizkatzu zure pekatuak, diranak diran bezela.

ONDO KOMULGATZEKO EJERZIZIOA

Gauza jakiña da, konfesatzen dan guztian ez dala prezisoa Komulgatzea, eta Kristaurik onenak askotan, gelditzen dirala komulgatu gabe.

Beiñik beiñ Konfesio jenerala egiten danetan, bi edo iru konfesa alditan ez da Komulgatzen: Ez eta konfesoareak penitenziaz, mortifikazioz, edo pruebaren batzuek egiteko dispoitzen duenetan ere. Eta Dotriñaren falta, ta errore gaizto bat da pensatzea bekatuak ez dirala barkatzen, komulgatu arteraño.

Ala zuk uts egin ez dezazun onetan, ez dezu beiñere Komulgatu bear konfesoareak agindu bage, utzitzen dezula humildade aundiarekin, ez juateko esaten dizunean; ta baldin agintzen badizu komulga zaitezela, prestatuko zera ondorengo konsiderazio onekin.

KONSIDERAZIO

Pensatu nor datorren Komunioan zugana. Jesu-Kristo gure Jauna, Jainko, eta Gizon egiazkoa, Bera; dan guzia, Hostia Santua dator, zuri laguntzera. Eta zu nor zera?

ORAZIOA

O Zeruetako Errege, Jaun aundi, nere Jesus maitea! Zu, nigana Zerutik jetxi zera? Au zer da? Nori onelako gauzarik, Zure amorioari bai-zik gogoratuko zitzaion? Izan diteke, (eta fedeko egia da) nik, eta Zu nere Jaun aundia, Ostia txiki batean nere biotzean artu bear Zaitudala? O misterio guziz ezkutatu, ta guziz miragarria! O amoriozko Sakramentua! Zer egiñ al dezaket nik ezpada Zure aurrean arritu, humillatu, eta nere biotzeko atea Zuri pozik idiki, nere animako ostatu pobre onetan, Zu Erregerik aundiena artzeko? O Zeruaen garbitasuna nork lukean! O Aingeru, eta Santuen espiritu, guzia, eta Zure Ama Birjiñaren birtuteak, Zu oraiñ bear bezela artzeko, nork litukean! Egia da, ni pekatari galdu bat naizala. Baña, Jauna, Zu zera nere erremedio guzia. Atoz bada, atoz miseri-kordia guzien Jabea. O nere emalle guziz aberatsa! Zure ontasun kabuga-beak, eta Zure emanaiak enpeñatu, eta erakarri zaitu Zerutik lurrera, Zure ondasunak zerorrekinean batean niri emateko. O fabore pare bagea! Badakizu, Zure diña ez naizala; Eta alere orregatik Zure amorioak zakatzi nigana. Badakizu, zeren premia daukadan: Txit bearra nago. Indazu fede bizi, esperanza firme, ta karidade irazeki bat Zuk naien dituzun beste birtutea-



kin, Zu nere animan ondo artzeko, eta aurrera obeto abiatu, eta serbitzeko, Amen Jesus.

Sazerdotea Komunioa ematera datorrean, arrimatuko zera Komulgatzeko lekura fede bizi, ta amorioz beterik. Eta bendizioa, ta barkazioa ematean zuk ere Jaunari eskatuko dizkatzu. Jauna artzen dezunean eskatu aoz, edo biotzez, zerrrek debozio geiago dezun modurik onenean.

KOMUNIOAN

Jauna ez naiz diña Zu nere etxean sar zaitezen, bada asko da Zure itz bat, nere anima sendatzeko, ta salbatzeko, Amen Jesus.

Gero Jauna artzean egon bear dezu geldi, debozioz, eta modestiaz: burua altxatu zuzen, begiak lurrean, edo itxita: aoa era onean zabaldu, eta mingaña piska bat atera bear dezu, eta orrela Komulgatu bear da.

Graziak emateko erara jarri zaitte leku on batean ta alegñiaz ez beste gauzari begiratu, ezpada zure Jaun aundiari bakarrik: zere sentidu guziakin zere barren a debozioz sar zaitte, etorri dan Jesus maiteari itz egiteko, eta eskerrak emateko esanaz onela.

ORAZIOA

Ongi etorria zerala nere Jaun aundia, eta nere guztia! O nolakoa dan zure amorioaren indar paregabea! Nori sekula gogoratu, Jauna, Zuk niri onelako faborea egingo ziiñidala? Ai nere Jesus guziz ona! Eziñ Jauna, zeñ, bear bezela ni Zure diña izan! Ai, eta zer etxe, zer ostatu pobrea nere biotzean artu dezu! Baña Zu zera bakarrik Zeruan, eta lurrean nere Jaungoikoa. Zu asko zaitut bakarrik, ta Zurekiñ nago txit aberatsa.

Ea bada atozte barrena, atozte nere begiak, nere eskuak, eta beste sentiduak, atozte guziak, zuen Jabe amoroso oni ongi-etorria emateko, ta guziok Jesus Biotzean, ta beraren antzera santifikatu, eta biziera berri bat egiteko bear dezuna eskatzera. Zuen guzien erremedioa da Bera. Nere memoria, adimentu, eta borondatea atozte guziok batean, eta betiko zuen Jabe adoratzera, ta alabatzera, Amen Jesus.

ORAZIOA, EDO ESKARIA

Ea Zeruko nere etorkari aberatsa, eta emalle ugaria! Bada etzera ostatu pobre onetara alferrik allegatu, eta ez utsik nigana etorri, ezpada ondasunez beterik, nere Jaberik onena bezela. Ondo Zure beartua nago. Badezu nigan, nun zure Doaiak ondo enpleatu. Ona Jauna, zure oñetan, eta begien aurrean nere anima triste bearra: Orra nere begiak, mingaña,

eskuak, eta beste sentidu galdu erabageak: Diranak Zuk erremediatu, Zure bendizioz bete; ta Zure antzera egiteko.

Nundik eskatzen asi ez dakit, Jauna. Zuk nere berri obeto dakizu, eta zuri gusto emateko, zer ondoen dagokidan. Zu serbitzeko, zure borondate gozoa nere etzeko, ta kanpoko lanetan, nere estutasun, ta asnase guzietan beti egiteko, Zure grazia indazu: Eta orrekiñ aberats, ta zori onekoa beti izango naiz. Amen.

ORAZIOA

Zeruko ondasun guzien Jabea! Ez dizut utziko nere animaren Etxe pobre onetatik irteten: Ez dizut utziko nigandik joaten ni utsa, pobre, eta beartua utzirik. Ez, Jauna, nere ostatu onetatik juango etzera, ni Zure bendizioz bete arteraño. Guzien Jabea zera, eta eskeko guzien ongillea: Badezu nigan ondo zer egin. Orra Jauna, nere anima lur leorra bezela, Zure euri gozoaren eske. Orra ontzi utsa bezela, Zuk graziaz betetzeko. Badakutsu, Zure antzeko humildade, pazientzia, karidade, modestia, animako, eta korputzeko garbitasunaren zer premi andia daukadan. Oriez gañera, indazu Zure bendizioa, nere biotz au, nere begiak, mingaña, ta beste sentiduak Zure gustora zuzendu, eta moldatzeko. Zure biotz santuagatik bioz berri garbi bat indazu, Zure gisa, biziera berri bat egiteko, nere alegñi guziaz Zuri jarraitzeko, Zure borondatea zeñean nere zori ona baitagoan, oraiñ lurrean egin, eta gero Zeruan beti egiteko, Amen.

Anima Cristi, Orazio jakiña, Aita San Ignaziok beti esaten zuena.

Jesusen Anima santifika nazazu:

Jesusen Biotza irazaki nazazu.

Jesusen Gorputza salba nazazu.

Jesusen Odol prezioso Zure onez bete nazazu.

Jesusen Biotzeko ura garbi nazazu.

Jesusen Pasioa senda nazazu.

O Jesus ona enzun nazazu.

Zure Llagen artean gorde nazazu.

Zugandik irteten utzi ez nazazu.

Etsai gaiztoetatik libra nazazu.

Nere eriotzako orduan dei nazazu.

Zugana etorzea agindu zadazu.

Santu guziakin Zu beti beti alabatzeko.

Sekula guzietan Amen.



AMA BIRJIÑARI, TA SANTUAI ORAZIOA

Zeruetako gure Erregiña Ama Birjiña, Santa Maria, nere Salbadore, ta Jaun aundi onen Ama maitea! Zeruko Aingeru, eta Santuak, atozte nere Etxe pobre onetara, Zuen gloria guztia, nerekin batean, nere biotzean adoratu, eta bedeinkatzera: eta, nere-uts, edo falta guziak betetzera.

O nere biotzeko Jaungoikoa!: Zure santu guziak beti bedeinka zaitzate, niri egin didazun miseriakordia, eta fabore onegatik. Ezer ez det, Jauna: Zuk dakizu nere pobrezaren berri. Zuri eskerrak emateko, zer eskeñi, edo ze agindu ez daukat, ezpada, nere biotz otz, edo ill au. Orra, Jauna dana. Nik dedan, eta naizan guzia Zurea da, eta ordu onean izan bedi betiko zurea.

Ai Jauna! Zeiñ gauza laburra, zeñ gutxi dan biotz bakar bakar bat eta ori aiñ epela, eta ezer eza nola dan nere au. A Zeruko Santu, Aingeru, eta Serafin irazeki guzien espirituaz, eta munduan diran, eta al diran guziak nik banitu, Zu beti adoratu, eta amatzeko. Guziak nai nituzke, ta diranak, Jauna, Zuretzat; Zuri amore onez guziak eskeiñtzeko, eta esker onak emateko. Amen.

SANTA TERESAREN ABISOAK

Ill zaite nai baidozu bizi. Penatu, nai badezu gozatu. Jetxi, nai badezu igo. Galdu nai badezu irabazi.

Biba, Jesus, ta Maria.

GOIZEKO ORAZIOAK

Jangoikoaren Fedez begiratu, ziñatu, eta egun artako obrak ofrezti itzatzu esanaz.

Nere Jaungoikoa, Graziak, eta alabantzak ematen dizkitzut, zerren egun onetara, Zu serbitzeko ekarri nazun, nik Infernuan egotea merezi nuela, *Aita gurea &*.

Gaurko nere pensamentu, itz, ta obra guziak agintzen, ta ofrezitzen dizut, nere Jesus onaren Odol preziosaz batean, Zure gloliak andienerako. *Aita gur. ta Abe &*.

Ematen dizut itza Zure graziarekin batean, Zu ez geiago, ofenditze-ko, batez ere onelako pekatu, geiena arrastatzen nabenean. Gaur diran

Induljenziak nere pekatuen satisfazioan, eta animen sufrajioan irabazteko intenzioa egiten det.

Aita gurea ta Abe Maria.

Indazu, Jauna, orretarako bear dedan Zure grazia. Nere bitarteko Santu, S. N. ta N. lagun zadazute, nere itz, eta propositu au gaur, ta beti ondo gorde dezadan.



ASTEKO ZAZPI EGUNETAN EGIN BEAR DITUGUN ORAZIO ETA MEDITAZIO LABURRAK

Gizonarengat da ondasun aundia Meditazioa. Eguzkiak munduari serbitzen dion ainbat serbitzen dio animari meditazioak: Argitu, eta berotzen du mundua, zeñarekin ikusi, eta bizi diran gauza guztiak. Gure zori gaiztokoak baldin bizi ez bagina, edo ekusiko ezpagendu; Ekustea da ia beste bizitza bat. Argia da meditazioa; bada Zerutik dator; zeñak argitzen digu entendimentua, dulzura aundi batekin. Instrukzio du zer utzi, edo zer eskojitu bear degun; erakusten digu zer igaro dan, ta zer etorriko dan. Begien aurrean ipintzen dio gizonari, zer dan gauza laburra, zer dan eternoa edo betikoa, eta zer dagokion: Argi onek borondatea berotzen du, konsentimentua erabakitzen du, eta determinatzen du obratzera alako moduz nun meditazio labur batekin desegiten ditu aragiaren berotasunak, eta munduaren amorioa. Zein itsua, falsoa, galdukorra, eta nai ta nai ez galduko dana dan munduaren amorioa; argi onek desegiten du: eta denbora berean itzalten ditu aragiaren berotasunak bere garraren txispakin. Emen bada, nere kristaba, begira, eta ezarri zaiozu zere buruari seliua sekulako kondenazio, edo salbaziokoa. Bestela esazu, izan arren ondakorra atrebitzen zerala itxasoak igarotzera izarrak baliatu gabe? Izan arren itxua, argi edo lagun gabe salbatuko dezula zure burua bide, lazo, altu baju, eta peligro guzietan? Eternidade guztian gozatuko dezula Zerua, eta sekulan Zeruko gauzarik pensatuko ez dezula? Beste moduz pensatu izandu dute testamentu zarreko, ta berriko Santuak: Ez bada denborai kulparik eman. Ez da beñere erlijiosoaren konstituzio edo Reglarik ipiñi meditazioan fundatzen ez danik; Onek gobernatzen ditu arako Anima aiek, zeñak arkitzen diran balantza batean ia ipiñiaz oiñ bata salbazioko portuan, ia atzera erretiratuz, aseguratuz Zeruko bidean. O lekzio gaiztoetako gaztetasuna, zenbait bider zere bakarrean sospetxa gaiztoak: egin dituzu! Guzionsat degu Zeru bat, eta bide bat: Etzaigu besterik falta begiratzea baizik; bañan kontuz, nola gure etsaiak inguratzen gaituzten, baita gure biotzeetara zenbat sarbide edo ate dituzten. Lapur bildur dunak ez du bidean kantatzen, bide sospetxakoak armakin; ta armatuakin ditu pasatzen: Itxasoan dabilzanak indarrez arraunzen dute denborale gaiztoa sentitzean. Beraz dagokizu, kristaba ipintea zure kuido guztia medita-

zio labur onetan. Ara bada, bakarrik egunaren parte txiki bat eskatzen dizut, bañan lenbizi deseaten dedana da egun ori zuk bear bezela arreglatzea, bada da gauza prezioa, txit gutxi eskatzen dizut, bada da guztiz efikaza, eragillea, eta poderosoa meditazioa, dan, laburrena ere:

Bost parte ditu zure gazte denborarako señalatzen dizudan meditazioak. Lenbizikoa da orazioa, zeñarekin preparatu bear dezun, itz labur batzuen bitartez (zere biotzeko afekto eta deseo egiazkoak laguntzen dizularik) eskatzera Jaungoiko onari grazia meditatzeke ondo, eskeñitako puntuak. Bigarrena da batzea sentiduak ta imaginazioa, eskojituaz leku ain egokia, nun ezerk ere ez dizun eragotziko zere meditazioa: zergatik jakizu barrungo sentiduak kanpoko sentiduen ateetatik allegatzen diran gauza edo gauz oen antz, edo iruipenaren mendean daudela; beragatik asko balioko dizu ez distraitzeko, eta espiritua oroitzeko, proponitzen dezun puntua asunto inportanziazkoa bezela meditatzea. Guztiz erraz mobituko dizu biotza, belarriak, eta begiak okupatzen dizun gauzak. Bai nere kristaba, laster egingo zenduke aietako aldia baldin ekusiko bazendu zure buruaren gañean arri batetik ezpata. Ekusten dana da, eriotzako azkeneko tranzean arpegirik ederrena oritzen dala. Irugarrena da, meditatzea proponitzen dan materiaren puntuak bi, iru, edo modu geiagotarra; Bañan modu batera askoko da baldin meditatzailearen entendimentua arkitzen bada instruitua meditazioa aszitzeko nai duen guztia; gauza askok laguntzen dio arrazoi naturalari puntu proponitua danean senzilloa: bañan bada inportanziazkoa, andia, edo fedeko puntu delikadua, utzi alde batera, ta sinistu Elizak erakusten dizuna zere arrazoi naturalean fiatu bage.

Laugarrena da borondatearen afekto andi batekin obratzea edo meditatez; borondate onak erabakitzen du arrazoiak aditzera ematen duen guztia, orazioa baliz bezela, ikasten du aditzalle gustozko baten modura: Ezagutzen du garra datorrela suagandik, bere burua animatzen du afekto askorekin, ta egiazko suspirioekin sutzen du pekatuaren gorrotoan, birtutearen amorioan, munduaren desprezioan, ta Eternidadearen deseon: Alako moduz nun asunto onetan, ez bada ere egingo al ditekean dilijenziarik aundiena, bai beinza onena. Billatu bear dana da gustoa, edo saborea, ta ez jakinduria, S. Bernardok dionez: Ta zer balio dizu asko pensazeak, ta ez ezer egiteak? Ez kulparik eman ez jakiñari. Irugarren partean erakusten dan bezela, eziñ zabaldu badezu meditazioa, ipiñi ezazu kuida-guzia laugarren onetan; Au bage ark, zer balio du? Eta onek ura bage asko du balio. Ara emen ejenplo poderoso bat San Buenaventura Elizako Doktore aundiarena. Arkitu zuen San Buenaventura Aita Ejidiok arritu-



rik bere meditazioetan: eta esan zion, sikiera Zuk ez dezu erraz izango Zerua? Zeñari Jangoikoak ematen dizun aĩn doai aundi jakinduriatzkoa, nun dakizun bide klaroa, ta segurua? Bereala eranzun zion. Aĩn urrutidago Jaungoikoaren amorioa jakinduriatik, nun datzarrenak, pobreenak, simpleenak, ta obligaziorik gutxiena duenak dezake amatu Jaungoikoa, eta unitu, edo batu berarekin, askoz urrago, Teologoen artean dan Doktore onena baño. Au aditu zuanean Ejidiok, kontentuz beterik joan zan Ziu-dadera, eta pozaz deadar egiten zuen, zarrak, eta gazteak, pobreak, eta aberatsak, sanoak, ta gaisoak ama ezazute Jesus, eta aundiagoak izango zerate Zeruetan, Aita San Buenaventura baño.

Bostgarren partea da, edo konsistitzen du ipintzean biotzeko resoluzio firme bat orazioakin batean, aldegiteko, amatzeko despreziatzeko meditazioak erakusten dizkitzun gauzak. Onetarako deituko dezu Jaungoikoa zure anparora petxuko golpe serio, eta deboziozkoakin, modu onetan merezi dezazun alkantzatzea ain ansiaz deseaten dezuna.

ASTELENA

Jarri zaitetz Jaungoikoaren presentzian.

Egizu Orazioa: Aita gurea, Ni pekataria, edo beste zuk naiago dezuna esanaz.

Nere biotzeko Aita, Jangoiko aundia: orain ipintzen zaitut nere begietan gauza guziak, ekusten dituzuna bezela: A itsumen alferra! Leku guzietan arkitzen Zera, iñun baño geiago nere biotzean: Ta nik bilitzen det nizaz kanpora. O nere argitasuna argi egin nazau; Zu konsideratu, eta deseaz zaitzadan!

Eskoji ezazu leku bat lagun artetik apartatua, nun zere bakarrean igaroko dezun zure bizitza. Jangoikoaren begietan bazeunde bezela.

Lenengo puntua, konsidera ezazu Jangoikoaren aunditasun neurri gabea, bada Zeruen gañean, ta azpian ez da arkitzen gauzarik aĩn aundirik, ta aĩn txikirik, ezta ere aĩn ezkutaturik, zeñagan ez dan arkitzen Jangoikoa, aĩn uniturik bera ekusiaz, sokorrituaz, konserbatuaz, alako moduz, nun momentu batez desanparatuko balu, ezerezera biurtuko ez lizatekean.

Bigarren puntua: Konsidera ezazu, ekarri itzazu zure memoriara momentu guztiak uso arrazoizkora allegatu ziñanetik, arkitzen zeran instanteraño, esna zaite, ta begira zeregan, zere artean, zure konzienzian, ia Jangoikoaren Legeaz gobernatu zeran, eskribitzatu zure pensamentuak, itzak, obrak, animaren intenzioak, gorputzaren nezesidadeak, loa, bellak, guziak balantza batean ipiñi, ta begira ezazu, ia merezi dezuna dan premia, eta pena eternoa.

Irugarren puntua: konsidera ezazu zer gertatuko zatzun Jangoikoaren presentzian, ekusiaz munduko Erregen Palazioetan pasa oi dana. Emen ez dezu ekusten erreinoan diran gizonik aundienak, eta aberatsenak presentzian dirala Erregeren aurrean grabedade, eta modestiarekin, bere mendekorik humillen, ta pobreenak bezela? Daudelarik zutik beren oiñen gañean gaiso, edo eri egon arren? Ez dezu ekusten emen dan pasiorik desordenatuena, ta irazekiena itzaltzen dana! Birtutea anparatu, ta sokorritzen dana! Maldade jenero guziak gizonaren arpegia pasatu ta lotsatzen duena.

Laugarren puntua: Begira zaiozu zere buruari, eta konpara ezazu zure begia Jaungoikoarenarekin, zeña sekulan engañatzen ez dan, loak



artzen ez duen, sekretoak ekusten dituen, gauza guziak presente dauzkan; Ez da ezer arkitzen dan txikienik ere neurtzen ez duenik, edo pena, edo premioaz, ta au eternidade baterako. Mundua engañatzen da, ta engañatzen du, lotzen da, bere gauzak bakarrik ekusten ditu; onek pena andiak, eta premio txikiak. Guztia da laburra. A Eternorik, edo betikorik ezer ez!

Ea bada, mugi ezazu zure afektoa, ta prepara ezazu beste peligro, edo etsaien lazoen kontra; meditazioak eskeintzen dizuna, desea zazu. Nera itxua, nere galdua, nik billatzen det banidadea, eta ekusten det nigandik kanpora. Eta zu, o nere argia, etzaitut ekusten, nere ona ez det billatzen neregan! Baldin mundutar guztiak beren podere, eta aberastasunakin niri begira baleude, baldin mundu guztia nere mende banu ere, ezer ez nintzake Jauna Zu bage, Zu ekustea logratu baneza, baña asko da Jauna, Zuk ekusten banauzu. Ai, Zenbat denbora da, ekusi ez zaitudala! Beragatik izandu naiz pekatuan largoia, birtutean epela, kuidadu bagea denbora aprobe txatzeko, esker bagea Zure mesedeetan. Ez det pekatu-rik egingo, badakit begira dagoana maldaden bengatzallea nere Jauna, ta Jabea.

Ez naiz bildurtuko; ez det ukatuko, badakit begira dagoala nere Jaun defensora.

Ez naiz izango eskergabea ainbeste mesederi, badakit begira dagoala nere Jaun Kriadore, ta redentorea.

Aprobetxatuko naiz momentu guztiezaz, badakit begira dagoala, guztia presente daukala Jaungoikoak.

Ez diet obedezituko nere pasioai: Ez diot segituko nere buruari, Nora giatuko du bada itxu batek bestea, ezpada peligrora?

Buka ezazu meditazioa propositu labur, eta deboziozko petxuko golpeakin, ezarri ezazu zure petxuan, kopetan, arpegian itz au: Jangoikoa begira dago.

ASTEARTEA

Kristabaren fiña, edo destinoa.

Para ezazu atenzio guzia, ta jarri zaite kriatura guzien erdian, eta begira gieu, zer fiñetako Jangoikoak kriatu zituen lenbiziko sei egunetan.

I. P. Zabilta Zeruko, aireko, lurreko, itxasoko ainbeste, ta aiñ jenero diferenteren arrean, ta ikara zaite arako Jangoikoaren mirarizko jakinduria, ta potestade arzaz.

II. Begira giozu bat banaka. Ekusiko dezu nola lenbizi Jangoikoak kriatu zuen artatik duten beren jatorria. Nola sekulan mudatzen ez diran, ta ala arrautz bakoitzetik dator bere jeneroko txittoa, eta ezkurretik Arbolala.

III. Nola guztiak suspiratzen duten beren fiña, ta zentroa: Ta ala ez dira gelditzen allegatu arte arria, sua, aizea, eta ura. Nola Eguzkiak Zeruarrekin, eta Izarrak, ainbeste sekularen urtetan beren jornada beñere mudatzen ez duten. Nola urtearen lau denborak alkarri jarraitzen dioten. Nola beren denboran kantatzen duten Egaztiak, bear egiten duten Erleak. Guztiak, o gizon miserablea zure serbizio ta ejenplorako!

IV. Zure fiña au da destinoa, gizona, kriatura guztien artean prinzipalena da; Kriatura zure esklaboa da. Ez enpeñatu aberastzen; bada ori lurrari dagokio. Ez banidade geiegi artu zure etxura ederraz, zure senti-duaz; zure indarraz, bada onetan bentaja egiten dizute mendiko animaliak ere. Jaungoikoari bakarrik agradatzea, ta serbitzea da zure fiña, eta destinoa. Beste arako munduko gauza aiezaz serbitu zaitez Jangoikoaren serbizioarako, bañan ez bekatu-urako. Zer bada uste dezu dala Jangoikoaren borondatea gauza guztiak zuri serbitzea, ta zu beraren kontra? A zure miserablea, baldin oek guztiak serbitzen badituzu, ta ez Jaungoikoa! Zer ordena deskalabratuagorik, izatea gizonak bakarrik ararazoi naturalaren ezaguera, eta gizonak berak despreziatzea baño? Kontu bada, anima, ta zaude atalaian, aparta zaite munduko kriaturatik, bada akusatuko zaituzte juizioan. Lotsa zaitez eguzkiaren eta izarren obediendiaren bistan; lurraren betiko fruktu, animalien birtutetan, guztiak premio ta pena gabe; alaeze zuk baterako edo besterako eternidadea izango dezunak bezela.



ASTE AZKENA

Pekatuaren dañak.

Gizona pekatuan kontsideratzea baño, posible ez da desgrazia andia-
gorik imajinatzea gizonaren entendimentuak, ez destierro edo karzelarik,
ezta ere monstruo aiiñ ikaragarririk.

I. Guztiz onak dira gauza guztiak, Jaungoikoak kriatu zituelako;
bakarrik bekatua da guztiz doakea. Guztiak datoz Jaungoikoagandik:
bakarrik pekatua sortu zan Jangoikoa gabe, ta Jaungoikoaren kontra.
Infernuko dolore guztiak, demonioen krueldade guztiak bakarrik pekatu-
tik datoz. Eta gizonak bakarrik, zeñak munduan rezibitzen dituen fabo-
rerik aundienak, pekatu egiten dute?

II. Pekatu bakar batek bota zuen Zerutik Luzifer, Paradisotik Adan,
eta ori izanik ura Aingeruen burua ta au gizonena! Zer merezi dezu zuk
gizonaren itzala ainbeste bider pekatu egin dezuna? Zure tristeza, baziñe-
kien pekatua desegiteagatik Jaungoikoa gizon egin zala padezitu, ta erio-
tza sufritu zuela.

III. Ia bada oraiñ batu itzazu dañuak pekatari errukarria; kentzen du
grazia, arako ondasun parebage ura arako ondasun bakar ura, zeña gabe
gizona lurreko arra baño miserableagoa dan. Galerazotzen du arako frutu
eder Jesukristoren Sakramentuen, eta Zerutar guzien merezimentuena;
Isten du Zerua, irikitzen du infernua, kargatzen du kateaz, ezarten du
uztarri berria aragiaren sugar berriak pistutzen ditu: ez du sekulan aitor-
zen ase danik: Aztu erazotzen du izan dezun birtute, eta merezimentua,
itzaltzen du Jangoikoaren antz, eta semejatza; Unitzen du kondenatuakin,
apartatzen du Aingeruen konpañiatik, iltzen du anima, soberbiaz bete-
tzen du espiritua, ukatzen du Jangoikoa, adoratzen du Satanas; ainbeste-
raño lotzen du, eta estutzen du, nun milagro andiagoo litzake pekataria
justifikatzea, mundua kiatzea baño. A, eta oraiñdik penagarriagoa, ta
odolezko malkoakin negargarriagoa da; momentu labur bategatik salzen
du eternidadea!

IV. Iges egizu bada anima. A! Aparta zaitetz al dezun ezkerro, mos-
truo kruel onegandik; Bada beiñ itsasten bazatzu, etzera erraz apartatuko.
Errazago da ez erortzea, erori, ta libratzea baño. Zer lastima andiagorik!
Zuretzat anima Jangoikoaren imajiña, ta Zeruaeren herederoa, Aingeruen
laguna, Jesu Kristoren Esposa; Zu izatea baño demonioaren esklaba,

infernuaren kautiba, Jangoikoaren etsaia, Jesu Kristoren lotsagarria: Utzi
itzatzu bada aragiaren deseeo desordenatu, ondasunen lazo, eta honren
itzal oiek. Ez bazera ofrezitzen orrenbesteraño damutzea: samintasuna
gotzatzen da, kontsideratuaz momentu labur batez Eternidadea.



OSTEGUNA

Eriotzako ordua.

Konsidera ezazu zure azkeneko agoniako lantzea, ta para ezazu zure imajinazioan, nola arkituko zeran zure azkeneko eriotzaren pelean.

I. Eriotza da ziertoa, da ere bakarra: ta azkena gauza guziena. O anima! Ziertoa da eriotza, eta beñi bakarrik ill bearra! Eta ill bearra. Gorputza duten gauza guztiak.

II. Ordua ez da ziertoa, aiñ sarri dator derrepente, nola aurretik abi-soakin: Ez degu edade segurorik, ez egunik, eta, ez instanterik.

III. O zer diborzio, edo apartamentua! Begira nola peleatzen dan miserablea eriotzako tormentu sentiduen ta mienbroenean, galtzen du kolorea, ikaratzen da, bukatzen da, zabaltzen da, ta izerditzen da. Atera zazu kontua, zenbat, eta nolakoak izango diran gorputza agonian dagoanean animak aurrez sentitzen dituan biotzeko estutasun, ta izugarrizko naigabeak.

IV. Alde guztietatik inguratzen dute anima izu aldi ikaragarriak. Demonioak presentatzen dizka begien aurrean bere pekatu guziak, denbora gaizki enpleatua, merezimentu despreziatuak. Ai nun dira arako instante aiek, zeñetan momentu batez aprobetxatu baniz Zerua logratu nezakean! Zori gaiztokoa munduko ondasunen deseoa. Zer gero esperatzen dezu? Bide estua, ta bakarra izango dezu, era-mango zaituna Jaunaren presenziara, juzgatua izatera; nun bakarrik akonpañatuko zaituzten zure obra onak, edo gaiztoak. Alferrik orduan miserable orrek deadar egingo dezu, ainbeste barkazio izango du zure animak, zenbat gusto eta atsegñi kunplitu diozun zure gorputzari: alaeze gusto guziak geldituko dira gorputz illarekin usteltasuna, eta arrentzat; eta anima bakarrik presentatuko da Jaungoikoaren juizioko balantzan.

Nola bada onenbeste estutasun, eta zure miserien artean afljiturik, uste dezu azkeneko lanze artan eriotza ona egitea, baldin alde aurretik begiratu, eta prestatzen ez bazera?

Ea bada anima porta zaite, eta obra ezazu alako muduan nola deseaten dezun arkitzea juizioko denboran: Ondasun tenporalak gozaitzatau soñeko arropak bezela. Ai ta beñi ill bearra! eta guztiak ill bearra; obra onaz eta gaiztoaz kanpora; eta gero eternidadea. Beraz zertan zaude lo, eta zergatik orren esklabo? jakizu bada kristaba, aragia, gusto eta atsegin-

tasunak, desonestidadea, bellan daudela, eta nagusi dirala, zu, ta zure aniamaren kalterako. Honoreak, gustoak, ondasunak beñi utzi bear diran gauza guztiak utzitzazu bada beste gauzarik ez dizute emango pena eta dolorea baizik. Gauero konsidera ezazu eriotzan. Zenbat eta dulceagoa izango du bere azkeneko suertea eta eriotza ondo enpleatzen dituenak bere pensamentuak, itzak, obrak, orduak, egunak, urteak bere benbora, itz batean bere bizitzako momentu guztiak.



OSTIRALA

Azken Juizioko eguna.

Para itzazu zure begiak, ballarria, eta entendimentu guztia, Josefateko Zelaian, nun batuko diran giza kasta guziak Tronpeta ikaragarriaren soñura.

I. Aurretik datozen señaleak aditzera ematen dute, zer ikaragarria izango dan egun ura. Ante-Kristoaren persekuzioak, alakorik izan ez dan bezelakoa, Itxasoaren lurrerako irteerak, ta animalien alborotoak; ibaien azierak; lurraren dardarak, zeñetan munduko Gaztelu, Ziudade, ta Palaziorik gogorrenak autz biurtuko diran: Zeruko Izarren erorteak, mendien, eta aitzen labañerak, landare, ta arbola guztien galerak, gizonen ikarak, oen alferrikako igeserak, ta deadarrak.

II. Adanegandik asirik izandu diran gizon guztiak presentatuko dira Josefateko zelaian, ikaragarritzko tronpeten soñuan, kriatura guztien bata besten kontra armatzeko bullan, zeñagaz pekatariak nai izandu ez duen serbitu salbatzeko.

III. Emen agertuko dira itzak, obrak, ta pensamentu guztiak. O zer lotsa! An bai agradezitua izango dala birtutea, ta despreziatua pekatua! Aurpegiz aurpegi akusatuko ditu Demonioak, pekatu andiak, txikiak, eta guztiak konzienziak barrutik garaituko du: Gañetik Jaungoikoa dagoalarik irazekia bengatzeko, azpitik infernuak idikirik. Ai Zenbat estutasunen artean ekusi bearra duan bere burua gizonak.

IV. Jesukristo lotsatuko da ainbeste mesede egin diozkalako gizonari, eta gizonak aiñ gutxi estimatu diolako bere Jaungoikoari: Arpegira ematen diolarik Etsaiak, nola bere denboran nai ta nai ez engañatu dituen gizonak, eta bere lazoakin munduaren parterik geiena bereganatu duen. Beraz lotsa kolera biurturik, erabakiko du ikaragarritzko azkeneko, eta ail apelazio bageko sententzia, biralduko ditu bere ezker aldetik tropan eternidaderako, esanaz: *Zoazte madarikatuak Su beti betikora.*

Batu zaitetz zeregana anima, eta biotz biozetik damu zaitetz. Ai ez kuidadurik ipiñi gizonen sentenzietan: Jangoikoak beste moduz juzgatzen du. Ez zaitetzela engañatu. Egizu beti Konfesio osoa. Uste arren libratzen zerala Tribunal onetatik, besteari kontu. Obeago dezu emen baten aurrean lotsatu zure salbaziorako, ta ez an guztien aurrean kondenaziorako. Losintxatzen zaituzte gustoak, ta atsegintasunak. Atzera itzatzu arako

Jesusen sententzia ikaragarri arekin: *Zoazte madarikatuak &c* Misericordia izazu Jauna, nizaz, Zure misericordia aundi arzaz. Ez arren Jauna konturik eskatu niri zure sierbo oni. Ez det Jauna geiago ofendituko, ez naiz biurtuko geiago loitzera, gustatzen zat garbitasuna, eta inozentzia.



LARUNBATA

Infernuko penak.

Jatxi zaitetz infernura, eta kuidadurik andienarekin esamiña itzatzu ango tormentuak.

I. Uste dezu azkena dala eriotza? Ez, segitzen dio oraindik gaiztoagoa dan bizitzak: Bizitza kondenatua, edo illa, au da eriotza bizia.

II. Anima irteten dan bezela gorputzetik, kondenatua Jaunaren Jui-zioaz, entregatua izaten da bertatik Demonioaren mendera. Ta ai aren errukarria! Zer tormentuak sufritu bearra dan enbidia, eta soberbiazko leku artan!

III. Han gorputzeko sentidu guzien pena. Ekusiko ditu mostruo ika-ragarriak, tormentu eziñ siñistu ditezkeanak. Adituko ditu ortzen karras-kadak, blasfemiak, negarrak, eta guztiak konfundituak, ta desesperatuak. Gustatuko du azufrea, kiratsa, gose, eta egarri miserablea. Usai egingo die ur atsen samintasan guztien samiñenari: Besarkatuko ditu mostruo ikara-garrienak. Pekatu jenero guztiak su egingo dute, itzaliko ez diran garretan. Mienbro guztiak sentituko dute beren tormentu kontrarioa, eta geiena sentituko duena da, eternidadean irauteak eriotza bizi onek.

IV. Andiangoak izango dira animaren tormentuak: arako konzienzia-ko ar ura, zeñak erretzen, ortxikatzen, eta puskatzen duen infernuko illunbe triste artan, ikusten duen bitartean argitasun, eta seguridade guz-tiarekin alde batetik itxiak infernuaren auba, Zeruko atea, penitentzia egi-teko denbora, guztia Eternidaderako; bestetik beti egon bearra Jangoiko-aren, eta Zerutarrren gorrotoan, graziarik, ta glozia bage. Ai, eta nere zori gaiztokoa deadar egingo du, nik galdu nituen momentu labur bategatik arako ditxa, ta zorion eterno aiek. Ai ta nik instante labur bategatik autu nituen oraiñ sufritzen ditudan tormentuak, eta tormentu infernukoak, ta betikoak. Emendik dator desesperazioa, blasfemiak, negarrak, ta guztiak eternidade baterako.

O Anima o Anima nerea! Baldin sekulan nere entendimentura alle-gatu bazat, zer dan Eternidadea, emendik aurrera bai meditatuko derala, oraiñdano baño obeto. Ai ta zenbat bider pekatu egiñ dedan, beste ain-beste aldiz merezi nuen eternidade ura, bai ta ondo irabazia! Ai ta zer lotsa artu bearra naizen, zori gaiztoko gusto, ta atsegintasun labur, eta ezerez aiekatik! Alde egizute nigandik desonestidadeak, jolasak, gusto, ta

atsegintasunak. Badakit allegatzean Eternidadea nere entendimentura izotz, ta arri biurtzen dala biotza. O nere Jaungoikoa, emen sutu, eta kiz-kal nazazu! Egizu arren nik kunplitzea, agintzen dirazuna, eta agindu zadazu nai dezuna emen, gero barka gidatzun Eternidadean, Amen.



IGANDEA

Zeruko gloria.

Igo zaitetz zere biotz, eta sentidu guztiakin, ta jarririk Zerutarren konpañian, medita ezazu aien zori ona, zeregan sentitzen dezun gozorik dulzeenarekin.

I. Guztia ekusten da infernuko kontrara, an guztia da gaiztoa; emen kontrara guztia da pensatu al ditekean onena.

II. Sentidu guztiak, ikustmenak, entzuerak, gustaerak gozatuko dute atsegintasun kabugabekoa; bakoitzak amatuko duena osoro menpetuko du: Ez du bada sekulan begiak ekusi, ez belarriak aditu, zer prestatu duen Jangoikoak bere eskojituentzat.

III. Beragatik gizonak aditu dezakean modura, konparatzen da Zeruko Gloria Erreinoarekin, Ziudadeakin, Eztaiaikin, Ortubarekin, perla fiñakin, jabe bageko ondasunakin, oetako bakoitzera oi dan deseogatik. Bañan zenbat dira gañerako Zerutarren konpañian arkitzen diran doteak? Arako Koro aiek; arako Bienabenturadu aien arteko konpañia nun arkitzen diran aiñ gozoz beterik, nola batek izan al dezakean gloriarik aundiena izango dute guztiak.

IV. Zeñek konprenditzen du animaren bienabeaturan? Ekustea aldetik, eta osoro Jangoikoa bera dan guztia eta Jangoikoagan gauza guztiak. Gozatzea Jaungoikoa, eta Jangoikoarekin, gauza guztiak seguridade osoarekin. Ekustea bere begiakiñ alde egiñik libratu dan kastigua, alkanzatu duan koroa. Eta koro onetan, nolako premioak obra hon bakoitzarena? An deseoa kodizia bagea, satisfazio igui bagea, abundanzia faltarik bagea, gozo, ta alegria dolore-bagea, posesio seguroa bildur bagea. Nai dezu geiago? An ondasun deseatu, pensatu, ata ponderatu eziñ al ditezkean guziak; batere gaitzik bage, arako Eternidade seguru, eta zori oneko artan.

O nere Jangoikoa ! o gauza guzien Jabea! Nere tristea! Zenbat eta luzeago dedan mundu onetako bizitza, Zeñek eman al ditzake uso baten egoak, leen bait leen egatu, ta deskansa nadin? O anima desdixatua! Atrebitzen zera oraindik segitzera gusto loi, ta labur oiei, engañaturik oien errañuan, mitxirrika argitan bezela? A! Eta zer seguroa dan itzak, obrak, eta pausoak Eternidade batean izango duten pagua! Anbat estimazio geiago an izango du, zenbat, eta despreziatuagoa dan emen. Ta alere ez dezu

sufrituko gaitzik batere, eta despreziatuko emengo ondasun falso, labur, galdukorrak? Bai nere Jaungoikoa, erabaki det bertatik, ta itz ematen diot, berorren serbitzetik ez alde egiteko, berezitzera non denbora alako moduz nun momenturik laburrena ez det galduko; Askotan nere begiak altxatuko ditut Berorren Palaziora, begiratuaz egunaren, ta gabaren begi eder oiei; Au da Eguzkiari, eta Izarrai, oetako bakoitzak ematen diran konsuelo, eta pozarekin deseoa dezadan bizitzea arako Zeru artan, nun arkitzen Zeran, O nere Jesus ona.



IRU ABE MARIAK

Goizean, eguerdian, eta arratsean iru Abe Mariak erezatu, eta Indulgenziak irabazteko, esazu modu onetan.

Angelus Domini &c Aingeruak Maria Birjiñari berri onak eman, eta Espiritu Santuaren graziaz, Semea artu zuan. *Abe Maria*.

Ecce Ancilla & Ona Jaunaren esklaba, Zure itzaz batean, egin bedi nigan. *Abe Maria*.

Et Verbum Caro & Jaungoikoaren Semea Gizon egin zan, eta gure artean bizitu zan. *Abe Maria*.

Jainkoaren Ama Santa erregu ezazu gugatik, Kristoren promesen diña egin gaiten. Amen Jesus.

ORAZIOA

Iguzu arren Jauna gure animetan Zure grazia, Aingeruak berri onak ekarri, eta Kristo Zure Semearen Enkarnazioa ezagutu degunok aren Pasioa, ta Gurutzeagatik, Resurrezioko Gloriara eramanak izan gaiten, Amen.

MAIA BEDINKAZEKO ORAZIOAK

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren Izenean. *R: Amen*.

Jauna, gure esperantza Zugan dago, ta jateko bear dana Zuk ematen dezu. Zure eskua zabaldu, eta guziok bendizioz betetzen gaituzu. *Pater nost*.

Aita Gurea errezatu, eta gero debozio aundiaz esazu.

Doai guzien emalle gure Jauna, Zure eskutik guk artu ta jan bear degun guzia bedeinka ezazu, Jesu Kristo Zure Semeagatik: Eta beraren izenean Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak guziok bedinka gaitzate-la, eta bere gloriako Maiera betiko eraman gaitzate-la, Amen Jesus.

Jaunaren ondoren grazia emateko esazu.

ORAZIOA

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean, Amen Jesus.

Grazia, eta Alabanzak ematen dizikitzugu gure Jauna, oraiñ, eta beti egin diguzun on guziak-gatik. Zugandik gure gañera etorri dan bendizio, ta mesede onegatik, mundu guztiak beti alaba zaitzala, Amen Jesus. *Pater noster*; eta gero esazu.

ORAZIOA

Gure Ongille guziaz, Jauna Zure bendizio ugariak paga zaiezu, Zure Izen Santuagatik; Eta Anima Fiel guziak Zerura, Zu alabatzera, eramaitzatzu. *Pat. Nost. Abe &*.

Ta gero, Anima fiel guziaz Jangoikoak betiko deskansua diela. *R: Amen*. Emen batu gaituan Jaunak berak Zeruko Glorian guziok batu gaitzala. *R: Amen*.